

EZAGUTU TXAKOLINA GERTUTIK ACÉRCATE A NUESTRO TXAKOLI

Antolatzaileak: **BAKIOKO UDALA, TURISMO BAKIO, TXAKOLINGUNE**

MARTXOA
17 eta **19**
BAKIO



10:00-etatik 13:00-etara



946 193 395

6 €

San Joseko jaiak direla eta, martxoaren 17 eta 19an Txakolinguneak, Turismo Bulegoak eta Bakioko Udalak bisita jakingarria antolatuko dute Interpretazio Zentrora, udalerrira eta udalerriko txakolingune batera.

"**Ezagutu txakolina gertutik**" jardunaldiak erakutsi nahi du zein den mahastizaintzak gizaldietan zehar utzi digun legatua eta zeintzuk diren ardo fresko eta aromatiko honen eta Bakioren arteko zuztar sakonak.

Hitzordua **datorren martxoaren 17 eta 19an** izango da, goizeko 10:00etatik aurrera. Plazak mugaturik daude; beraz, inskripzioak aldeztu aurretik egin beharko dira martxoaren 14ra arte Turismo Bulegoan edo honako telefono honetan: 94 619 33 95. Aukera ezin hobea gure zuztarretan sakontzeko eta **6 euroren truke** bisita gidatu honetan, pintxo batez, bi txakolinez eta jardunaldiko kopa oroigarriaz gozatzeko.